

Eskulan jasangarriak

MURRIZTU,
BERRERABILI ETA
BIRZIKLATU!



Inspirazioa gara.
Bestelako begiez irakurtzen dugu.
Hazten lagunduko diguten
istorioen bila gabiltza,
haziak bagina bezalaxe.
Ernatzen diren haziak, hazten direnak,
eta mundu osoan zehar barreiatzen direnak.
Oraina baikara, baita etorkizuna ere.
Has dezagun aldaketa!
Ekintza txikiek ere laguntzen dute.
Arduraz jokatzeko dugu gure inguruan,
eta mundu jasangarriagoa sortzen
laguntzen dugu.
Ideiak batzen ditugu, istorioak asmatzen,
hunkintzen gaituzten istorioak,
dibertitzen eta hezten gaituztenak,
xaxatzen eta aldatzen gaituztenak.

**ALDAKETA LIBURUETAN HAZTEN DA
EKOIRAKURLEAK GARA**

begiko

ALDAKETA LIBURUETAN HAZTEN DA

Eta hemen liburu asko ditugu zuri gomendatzeko:

Eurigilea

Gianni Rodari

Irudiak: Nicoletta Costa

Ezagutzen al duzu eurigilea? Arin-arina da eta hodeietan bizi da. Jauzika ibiltzen da hodei batetik bestera, txorrotak irekitzen eta ixten...

+4



+4

Hazi Txiki

Pello Añorga

Irudiak: Jokin Mitxelena

Hazi Txiki, ipuin honetako protagonista, hegan arituko da batetik bestera, paraxuta zabalik, harik eta harkaitz handi batzuk ikusi arte. Bertan lur hartuko du. Baina orduan aldaketa harrigarriak gertatuko zaizkio!



+6

Kutxa bete dinosauro

Ana Rossetti

Itzultzailea: Idoia Aranberri

Trastelekuan kutxa bat dago, ezertarako balio ez duten gauzez betea. Baina, Maia, Lier, Telmo, Gorka eta Niko Briko neska-mutiko ausartek irudimena erabiliko dute, traste zahar horiek tresna zoragarri bihurtu eta abentura zirraragarriak bizitzeko.

Katxin

+8

Antton Irusta

Irudiak: Enrique Morente

Katxin hamar urteko mutiko zintzoa da eta gustura bizi da aitonarekin mendialdeko baserri batean. Aitonak kontatzen dizkion istorioei esker, oso mutil jakintsua bilakatu da Katxin, eta bere jakinduria erakusteko aukera izango du eskolako lagun berrien aurrean.



Urte berria, logela berria edo berritua

Ideia batzuk emango dizkizugu, materialak berrerabili eta, planeta zaintzen duzun bitartean, logela berrapain dezazun.

Zure izenaren lehen letra egin dezakezu atean jartzeko.

Apaindu zure logela landare batzuekin.

Eraiki koloretako ekaitza.

Erabili eta botatzeko ontzi gehiagorik ez ogitartekoa gordetzeko.
Erraza, jasangarria eta pertsonalizatua!

Martxa gustuko baduzu, egin maraka batzuk zure abesti gogokoenari laguntzeko.



ZURE LOGELAN
SARTZEKO

Geldi! Hau nire lekua da

Honako hauek behar dituzu:

- *Kartoi berrerabilia*
- *Guraizeak*
- *Artileak edo hariak*

1. **Marraztu** tamaina handian zure izenaren lehen letra kartoi batean; adibidez, zerealen kaxa berrerabilia.

Moztu.

2. **Bildu** artilearekin letraren gainazal osoa. Kolore bakarrarekin edo bat baino gehiago konbinatuz egin dezakezu.

3. Bukatzen duzunean, **lotu** hariaren muturra, askatu ez dadin. Zintzilikatu ahal izateko, **utzi** hari bat luzeagoa.

4. Zure logelako atean edo gustukoen duzun tokian zintzilikatu dezakezu.



**Zure eremua
markatuko duzu.**


Eror daitezela tantak, nahiz eta euririk ez egin!

Mugikari honekin, zuk nahi bezalako ekaitza lortuko duzu.

Honako hauek behar dituzu:

- Komuneko paperaren tutuak
- Guraizeak
- Tenperak eta pintzelak
- Artileak edo hariak
- Grapagailuak
- Zeloak

1. **Moztu** komuneko paperaren tutuak hainbat tamainako uztaietan.
2. **Margotu** koloretako tenperekin eta utzi lehortzen.
3. **Eman tanta forma**, uztaia alde batetik estutuz.
4. **Moztu** hainbat luzerako artile edo hari zatiak. Jarri hari bat tanta bakoitzari grapagailuarekin josita.



5. **Itsatsi** leihoaren markoan. Tantak elkarrengandik bereiz jarri, hainbat altueratan, eta sortu konposizio bat. Ez badituzu leihoan jarri nahi, adar lehor batean, esekitoki batean edo zuk zeuk egindako kartoizko hodei batean lot ditzakezu hariak.



Eman bizia zure logelari

Egin loreontzi bat eta landatu kaktus bat.


Ez dizu denbora handirik kenduko!

Honako hauek behar dituzu:


- Brik huts bat
- Guraizeak
- Kola
- Errotuladorea
- Lurra
- Kaktusa



1. **Ebaki** brika tapoiaren paretik.
2. **Garbitu** ontzia ur beroaz.
3. **Moztu berriro** brika oinarritik 15 bat zentimetrora.
Sobratu den zatiarekin, moztu bi zirkulu eta egin belarriak.
Tolestu eta itsatsi irudian ageri den bezala. Egin begiak, sudurra eta ahoa ontziari.



4. **Jarri** lurra eta landatu kaktusa. Gogoratu noizean behin zenbait ur-tanta botatzea baino ez duela behar. Egin zulo bat oinarrian badaezpada ere, sobera botatako ura kanporatzeko.



**Eta irakurtzen jarrai dezazun,
hona hemen gomendatzen
dizkizugun beste liburu batzuk:**



+8

A zer azeria!

Roald Dahl

Irudiak: Quentin Blake

Haran bat, hiru baserri, hiru baserritar maltzur eta baso bat... Eta bertan, azeri azkar bezain ausart bat, hiru baserritar zitelen asmoak hankaz gora jarriko dituen behin eta berriz. Txilbor, Txikin eta Tximel zoratu egingo ditu azeri argiak. A zer azeria!

Inari, Laponiako lore

Joseba Ossa

Irudiak: Maite Gurrutxaga

Inari Laponiako leku lasai eta baketsu batean bizi da, amona, guraso eta neba-arrebekin, elur-oreinekin eta naturarekin bat eginik. Alabaina, Inari eta bere senideak ez daude arrisku guztietatik salbu: zibilizazio modernoa hurbiltzen eta aztarnak uzten hasi da...

+10



Miam, miam. Nire ogitartekoa beti goxo

Gorde zure askaria ontzi berrerabilgarri praktiko honetan.


Honako hauek behar dituzu:


- Oihalezko 2 ezpainzapi
- Guraizeak
- Orratza eta haria
- Belkro itsasgarria



1. 25 x 25 cm-ko ezpainzapiak erabil daitezke. Neurri hori moldeko ogiarekin egindako ogitartekoentzat da, baina, nahi baduzu, handiagoa egin dezakezu. Nahiago baduzu, oihal zati bat erabil dezakezu.
2. **Jarri** ezpainzapiak bata bestearen gainean, ertzek bat egiten dutela.
3. **Josi** eskuz inguru guztia edo, nahi baduzu, makinaz jos dezakezu.
4. **Itxi** gutun-azala balitz bezala, eta itsatsi belkroz.
5. Ustekabeen zikintzen bada, garbitu eta arazorik gabe erabil dezakezu berriro.

Erreparatu irudiari eredu gisa:





Egilea:

Inés Burgos

Irudiak:

Rubén Chumillas